

ELKARRI MOKOKA: Mikel Hernandorena eta Pello Azpirotz **HITZ ASPERTUAN:** Agurtzane Altuna
ERREPORTAJEA: San Migel santutegiko industaketak **KUXKUXEAN:** Urriko zorion agurrak

Ikusi
hemen
Mailope



issuu.com/mailopealdizkaria

“Auritz” arrazaren indarrari ezin eutsiz



Igor Mitxaus (Lekunberri)
Bertso berriak
Mailoperi jarriak



Irailaren 4ean ospatu zen Lekunberrin Nekazari Eguna. Zaldi gazteenak Auritz arrazako zaldi lehiaketan urduritu egin baziren ere, antolakuntza pozik dago aurtengo edizioarekin.

>> Nor da Nor?



Nor da nor?
Nortzuk azaltzen dira argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?

**Erantzunak hurrengo alean kaleratuko ditugu!
Ea asmatzen duzuen!**

- 2 -



Aurreko alean kaleratutako argazkia 1969. urte inguruan ateratakoa da. Gaintzako eskolako ikasleak eliz atarian: Antonio Otermin, Fermin Garmendia, (?), Javier Estanga, Mikaela, Pilar eta Jose Mari Intxaurrenondo, Isabel Etxarri, Lurdes Garmendia, Jose Iriarte; Loli Otermin, Gurutze Otamendi, Nieves Pellejero, Juan Luis Pellejero, Asun Askarai, Ines Otermin, Mila Etxarri, Rosario Askarai, Mila Otamendi, Asun Otamendi, Mari Tere Otamendi, Amparo Askarai, Juan Jose Otermin, M^a Josefa Pellejero, M^a Jesus Etxarri, Micaela Arraztio, Juan Jose Otamendi, M^a Antonia Gallardo andereñoa, Jose Miguel Intxaurrenondo eta Santiago Etxarri.

Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu eta kudeatuko dugu.

Antsoenea
ARID LATAKAREN ESNE GORDINEZ
EGINDAKO GAZTA ONDUA
TF. 948 51 34 68 . antsoenagaztak@gmail.com . Urtegi

Atabal
okindegia
Era askotako
ogiak eta gozoak
Etxez etxe
banatuko dugu
Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa,
salteixak,
sukaldaturako platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.
Antigua Kalea N^o7
31890 BETELU
Telf: 948 51 30 88
maiteharategia@hotmail.com

04> Iritzia

08> Luze: Koldo Nuñez



10 > San Migeleko industaketak

Amaitu dituzte San Migel Santutegiko industaketa lanak. Fran Valle de Tarazona arkeologoak gidatu du proiektua eta nazioarteko uni-bertsitate ezberdinetako ikasleek parte hartu dute.

14> Batzarre: Azken albisteak



16 > Alaitz Imaz

Alaitz Imaz Hernialdekoa da eta uda honetan Araitzeko udaletxean ibili da lanean. Askok aurretik ezaguna izanen duzue Gorritin eta Arriben egindako sega desafioetatik, Euskal Filologian graduatzeko-tan dagoen gazte hau segalaria ere badelako.

20> Kultura: Sagardo Eguna Lekunberrin.

22> Erreportajetxoak: Nekazari Eguna.



24 > Elena Irigoien

Cederna Garalur Elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu aurtengo udazkenerako. Langile eta langabetuei zuzendutako formakuntza saioak izanen dira arlo ezberdinetan trebatzeko.

26> Kirola: Plazaolako Maratoi Erdia eta Maratoia.

28> Ekinaren ekinez: Iribasko Martiko jatetxea.

31> Kontu txikiak: Agenda eta Merkatu txikia.

32> Kontrazala: Lekunberriko jaietako egitaraua.



Eusko Jaurlaritzak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Mailope doan banatzen da honako herrietan:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

Argitaratzen du: Mailope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

ERREDAKZIOA: Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo, Nerea Urbizu eta Andoni Tolosa.

ARGAZKIAK: Labrit, Juan Antonio Garaikoetxea, Agurtzane Altuna, Ainara Marañis, Alaitz Imaz, Iñaki Ganuza eta Joxe Mari Zabaleta.

PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

MAKETAZIOA: Araitz Amatria.

TIRADA: 1.600 ale.

Musu handi bat Manolo Urbietari



Deus baino lehen, Manolo edo Imanol, jaso Euskal Herri osoko haurren musurik goxoena. Iruñeko Larraona ikastetxean ezagutu zintudan zuzenean, oso aspaldian, UEU Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako ikastaro haietako batean. Zure ikasgelan parte hartu nuen oso gustura, haur-heldua nintzela, eta gehien gogoratzen dudana da zure goxotasun eta xamurtasuna. Helduokin ere, lurrean esertzen zinen gitarra jo eta kantatzeko, naturaltasun osoarekin, zalapartarik gabe, handikeriarik gabe, eta, irakasten zenigun, zure uste -jakintsuaren- arabera, haur guztiak gai direla kantatzeko eta musikarekin gozatzeko.

Harrezkero, ez dut berriz ere zurekin topatzeko zorioneko aukerarik izan, baina beti jarraitu dut zure bidea hurbiletik, eta, zu ezagutu izanak arrasto handia utzi zuen niregan.

Halaber, zoritxarrez, ezin izan nuen parte hartu zure omenaldietan, asko sentituta. Eta gaur ere, ezinezkoa gertatuko zait zure azken agurrean egotea fisikoki, baina gogoarekin hantxe izanen nauzu.

Eta bukatzeko, Imanol edo Manolo, jakizu zure abestiren bat entzun edo kantatzen dugun guztietan, gogoratuko zaitugula malko batekin begi baten, joan zatzaizkigulako, eta eguzki batekin bestean, egin dizkiguzun abesti-opari guztiengatik.

Hartu, ba, zure miresle guztion muxurik goxoenak, eta mila esker zure bizitza alaiagatik!

Itzulpena: Xanti Begiristain Madotz. Iruñea

JoandakoakGogoan

“Zuhaitz bezala lurrean, kantuak bezala haizean...”

Bidali zure heriotz-agurra mailope@labrit.net e-postara edo dei ezazu 638 652 339 telefono zenbakira eta agurtu itzazu zendatutakoak aldizkariaren bitartez.

(Dohako zerbitzua).

asegurogintza

aseguru
aholkulariak

**Zure ondarea
eta segurtasuna
babesteko modu
bakarra behar bezela
aseguratua egotea da**

Telefona: 943652220. asegurogintza@aseguroak.net
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

BANDOA

Ohar honen bidez honakoa jakinarazi nahi dugu: Larraungo eta Lekunberriko Udalek, Lekunberriko **EGUNEKO ZENTROAN** sustatutako etxebizitza hauetako bat alokatzeko eskaerak egiteko epea zabaldu da.

- **ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA:** Eskaerak aurkezteko azken Wl.t@ 2016ko urriaren 21~ izanen da. Eguerdiko 14 OOak arte ggonen da zabalik.

- **ESKAEREN AURKEZPENA:** Lekunberriko eta Larraungo Udaletako bulegoetan. horretarako zehaztutako epean.

- **ONURADUNAK:**

I.- Babestutako etxebizitzak eskatzeko aukera honakoek izanen dute:

A- 65 urtetik gorako pertsona guztiek.

B.- 65 urtetik beherako pertsonak,% 30eko ezgaitasun fisikoa, legez ggiartzaturik, gaintitzen badute.

-**INFORMAZIO OSAGARRIA:** Etxebizitzen esleipena jasotzen duten pertsonak, Nafarroako Gobernuak eman-dako dirulaguntzak jasotzeko aukera izanen dute. haien errenta aitorenak horretarako aukera ernaten badu.

ARGIBIDE GEHIAGORAKO Larraungo edo Lekunberriko Udaletako bulegoetara zuzendu zaitezket. Larraun-Lekunberrin, 2016ko irailaren 20ean.

ENERGIARI BURUZKO AHOLKULARITZA UDAL BULEGOA – LEKUNBERRIKO UDALA

EGUNAK:

Hileko laugarren asteazkenean, udaletxean, ordua aurrez hartuta.

URRIAK 26

AZAROAK 23

ABENDUAK 28

Doaneko laguntza juridikoa:

- **Energia fakturak:** Fakturaren inguruko arazoak, edukiak, tarifa motak, gizarte bonoa, (Elektrizitatea, erre-gaiak...)

- **Energia kontsumoak:** Kontsumoari buruzko argibidea, zenbatekoaren azterketa...

- **Energia aurrezkoa eta errendimendua:** Instalakuntza ezberdinei buruzko argibideak, kontsumoa, kostua...

- **Energia berriztagarriei buruzko argibideak:** Zein eta non jarri, funtzionamendua... (eguzki-energia, geoter-mia, fotovoltaikoa, haize-energia, biomasa...)

- **Gure kontsumo energetikoari buruzko guztia.**

NASEI INGENIERITZAREN ESKUTIK.

Bertso berriak

Mailoperi jarriak

Igor Mitxaus (Lekunberri)



*Zer moduz pasa duzu
aurtengo udara?
ederki ibili naiz
ni nere gisara,
nahiz konturatzera
joan den pikutara,
oraindik gozatzeko
aukerarik bada.*

*Norbait balin balego
pestako egarrik,
ez dauke exerita
espeatu beharrik,
ezpaita behar hortako
inongo izarrik,
ongi pasteko aski
umorea bakarrik.*

Juan Marirentzako puntua: _____

Zein da zoriontasun
sekretu gorena?

Oinak: _____

Sarri, larri, ezarri, zoragarri. _____



Doinua: Behin batean Loiolan.

- 6 -



PSIKOLOGIA ETA BIOMUGIMENDUA

Teresa Martínez Peñalba Mendiak Mankomunitateko psikologo berria da. Atentzio psikologikoa eskainiko du alde batetik Leitzan eta Iruñan. Familia terapiak nahiz banakakoak izan daitezke. Eta bestetik, biomugimendu ikastaroa emanen du Lekunberriko kiroldegian, urritik maiatzera bitarte, asteartero 15:00etatik 16:30tara.



ALDAKETAK KALE-ARGIAN


Lekunberriko Udalak argiztapen publikoak aldatu egingen du aurten. Led argia jarriko dute eta hala urtean 55.000 euro aurreztea aurreikusten dute. Gastea %60-70 jatsiko da.



PERRATOKI BERRITUA

Joan den hilean Ondare kultur taldeak antolatutako Mugiroko perratoki zaharra konpondu zuten. Auzolanean egin zituzten berritze lanak.

Jende famatua goraipatzen eta puzten



Mikel Hernandez

Iepa Pello!! Zer moduz ikasketara buelta?? Ongi espero dut, nahiz eta hasiera nahiko gogorra den. Gaurkoan lehengo egunean ikusi nuen egoera bati buruz idatziko dut, oso deigarria iruditu zitzaidan eta.

Larunbatean, Moreako zinemara joan nintzen afaltzera bi lagunekin, eta bertako goiko solairuan mahaiez gainezka dagoen zirkuluan afaltzen hasi ginen. Bat-batean gure atzean sekulako jendetza pilatzen hasi zen, eta gu galdetzen hasi ginen zer zela eta zegoen jendetza hura. Hala, buelta emanda, bi lagunek esan zidaten “Mujeres y hombres y viceversa” programako bikote bat bertan zegoelako pilatu zela jendetza, Sofia eta bere bikotekidea den Hugo. Jendetza hura beraiekin argazkiak ateratzen hasi zen, eta ilarak eta ilarak zeuden bata bestearen atzetik. Nik, hura ikustean, benetan ezin nuen sinetsi eszena hura.

“Nola ez dute kobratuko, guk goraipatzen eta puzten baditugu”


Gertaera honi lotuta, aipatu nahiko nuke gure gizartearen jarrera hauek bezalako asko ikusten ditugula: futbolariekin, aktoreekin, musikariek... Zenbat aldiz ikusten ditugu futbol zaleak beraien taldearen hotelaren sarreran argazki edota autografo bat eskuratu nahian? Zer gertatzen da zinemaldietan? Noski, gero kexatu egingo gara futbolariak, aktoreak, musikariek... kobratzen duten dirutzarekin. Nola ez dute kobratuko, guk goraipatzen eta puzten baditugu. Hori bai, zergak igotzen dituztenean eta jende xumea garenok horiek ordaindu behar ditugunean, errua beraiantzat dudarik gabe.

Azken finean, nik uste dut gizartearen oraindik kontzientzia ez dugula jende aberatsa ongi bizi dela, gehienbat, guk ematen diegun famarengatik eta duten markinarengatik. Irabazten dituzten milioiak, neurri batean, gure kontzientzia faltaren ondorio direla uste dut. Zuk zer diozu honi buruz Pello? Besarkada bat!



Kaixo Mike! Ba hementxe nabil errutinara berriro ere ohitzeko ahalegina egiten, kosta egiten baita hasiera baina pilak kargatuta ditut ikasturte berri honetarako.

Bizi garen gizarte honetan kontzientzia ugari lotan daudela uste dut, irudiaren gizartearen bizi gara, inongo sakontasunik ez duten gaietan dago jarrita interesen zati handiena. Gehiengoak miresten dituen pertsonak (zuk aipatu duzun bezala, adibidez *Mujeres Hombres y Viceversakoak*, futbolariak...) itxurakerian oinarrituriko pertsonak dira.



Pello Azpirotz

“Diru gose izugarria daukagu, diru errazaren gosea”

Txoriburuz inguratuta gaudela iruditzen zait eta horiek gizarte honetako askoren eredu izatea triste da. Estereotipo artifizial batzuk sortzen dituzte (fisikoki modu jakin batean egon behar zara, dirua izatearen garrantzia...) eta jendea horren bila joaten da. Nahikoa da ikustea telebistan gehien ikusten den katea zein den (Telecinco) dagoen egoeraz jabetzeko. Diru gose izugarria daukagu, diru errazaren gosea (telebistan tontakeriak esanez, baloi bati ostikoak emanez...). Eta okerrera da dirutza horiek irabazten dituztela guregatik, beraien ganako interesik ez balitz egongo ez zen horrelakorik pasako. Ea behingoz konturatzen garen horretaz.

Ez gara benetan konturatzen zinez garrantzia duten arazoez, sistema honek artaldea oso ongi elikatzen du dena kontrolatuta egon dadin. Kontrola mantentzeko tresna ugari erabiltzen ditu. Neurrigabeko kontsumoan oinarrituriko sistemak indibidualtasuna areagotzea dakar (kontzientziak lo mantentzeko tresna oso ona, onartu behar da). Geroz eta gutxiago axola zaigu ondokoari pasatzen zaiona, norberari eragiten ez digun bitartean. Hala ere, zoriez badaude gure inguruan “ardi beltzak” ere, kontzientzia esna duen jendea

eta lanean dabilena egoera honi buelta emateko.

Espero dut denek ikasturte hasiera ona izaten ari zaretela, eta hurrengora arte!!!



Koldo Nuñez-Betelu

LUZE

Aitaren garrantzia

Begi bistan dago geure familien ohiturak eta izaera bera aldatu egin direla azken urteotan. Gizarte osoa aldatu da eta ez dago ia antzik duela 50 urte eta egungo gizartearen artean.

Nire gurasoek elkar ezagutu ondoren, elkarrekin ibili ziren 8 urtez ezkondu arte. Bikote gehienek ez zuten horrenbeste denborarik hartzen azkenean elizan ezkontzeko baina, bai, gutxienez urte pare bat edo behar izaten zituzten pausoa emateko. Ezkondu eta handik 9 hilabete eta erdira jaio nintzen ni, bikotearen aurreneko umea. Ondoren beste lau etorri ziren. Nire gurasoena ohikoa zen. Bikote gehienak, ezkondu aurretik inongo harreman sexualik gabe iristen ziren elkarrekin bizitzera eta segituan emaztea haurdun geratu eta umea izaten zuen. Ezkondu, gainera, betirako ezkontzen ziren, garai hartan dibortzio edo banaketa oso ezohikoa baitzen. Hortaz, familian aita, ama eta bertan jaiotako umeak zeuden. Gehienetan, amak etxeko lan guztiak egiten zituen eta aitak kanpoan egiten zuen lan. Horrela, umeek harreman handia izaten zuten, izatekotan, amarekin, zenbaitek amona edo izebaren batekin izaten baitzuten, bigarren amarekin. Aita gutxi agertzen zen etxean eta inplikazio txikia, edo ia bat ere ez, izaten zuen umeen hezkuntza eta garapenean. Edo bestela, izatekotan, autoritarioa izaten zen eta “esku gogorra” erabiltzen zuen. Bazeuden ere, aitaren papera oso ongi betetzen zutenak, noski. Aita presente egoten ez zenean edo gogorregia zenean, neurri batean edo bestean kaltea egiten zion umeari baina nahiko normaltzat hartzen zen hori ere.

Egun, egoera oso bestelakoa da. Dibortzioa legala denetik, bikote barruko harremana, era batera edo bestera, gaiztotu edo, besterik gabe, bukatzen denean, gurasoen banaketa etortzen da, gehienetan. Normalean, aita ate-



“Badirudi, teknologiak lagunduta, aitak soberan egon gaitzkeela.”

ratzen da etxetik eta umeak amarekin geratzen dira. Hortxe aitaren urruntze fisikoa gertatzen da eta aitak ez badu honen kontzientzia handia izaten eta neurriak hartzen, umeentzako oso mingarria izan daiteke.

Honetaz gain, beste fenomeno bat ari da gertatzen gero eta gehiago geure gizartearen, alegia, inongo aitarik gabeko familiena. Izan ere, medikuntzak izan dituen aurrerapenei esker, egun, edozein emakume osasuntsu, ospitale edo klinika batera joan daiteke eta emaile baten espermarekin artifizialki haurdun geratu. Horrela guraso bakarreko familiak sortu dira, aitarik gabekoak. Areago, lesbianen bikote gero eta gehiagok ere bide hau hartzen dute umeak izateko. Kasu honetan, esan daiteke, batetik ama biologikoa dagoela, eta bestetik, bigarren ama bat dagoela, alegia, bi ama. Baina aitaren presentziarik ez. Badirudi, teknologiak lagunduta, aitak soberan egon gaitzkeela. Ikuspuntu honetatik, gizonak, momentuz, beharrezkoak gara esperma-emaile bezala, soil-soilik. Baina, hau benetan horrela da?

Dagoeneko, herrialde batzuetan hasiak dira ikerketa psikologikoak egiten ikusi ahal izateko noraino guraso bakarreko familietan eta lesbianen familietan zer ari den gertatzen umeen garapenarekin. Ikerketen arabera, aitaren ezak eragin gaiztoa izan dezake umeen osasun eta ongizatean. Egungo gizartearen arazo garrantzitsu batzuen oinarrian ere eduki dezake eragina aitaren ezak: pobrezia, delinkuentzia, nerabeen nahigabeko haurdunaldiak, umei eragindako gehiegikeria sexualak eta etxe askotan gertatzen omen den indarkeria domestikoa; gazte bortitzak, oldarkorrrak, tratagaitzak, eskolan emaitza oso txarrekoak, osasun fisiko eta psikologikoan arazoak. Azken batez, galduta eta psikologikoki desorekatuta sentitzen diren seme-alaba asko sortzen omen dira familia hauetan.

Hortik, aitaren papera egiten duen gizon baten garrantzia. Aita biologikoa ezaguna ez bada, emaileen bidez egindako ernalketan gertatzen den bezala, beste gizon baten presentzia oso garrantzitsua da. Izan daiteke familiako norbait, esaterako aitona, izan daiteke eskolako irakaslea edo umeak gertu duen gizon bat, baina, zalantzarik gabe, umeak gutxienez neurri batean aitarera egingo duen papera gertu badu, garapen psikologiko eta fisikoan irabaziko du.



Oihu-irrintzike

Eskutako arrasto ttikik kontatzen hasita ohartzeko naiz urteak badietzela aurea, oharkabea. Bi beitturen arteko magia berezie're holaxe pasatzea askotan: oharkabea.

Besotako umetxoa mahai gañean etzanda. Harri beire 80 urtetik aspaldi pasatako Amona. Ta hairi beire, ni. Bi esku torpen arteko jolasai beire, ni. Baxtarretik, ixilik.

40 gradu etzeen aparte izango Amonan etxeko sokalde hartan. Halai mantatxoekin tapatzen zion tripotatxoa hilleteetako umeai.

-Tripetik hoztotzen
dee umeak; tapa-
tu beti tripe umeai.
- Bai, Amona, lasai.

“Iurtzi in behar zaie sarritten tripe bueltan, hola eoten dee gustoa”, eta iurtzi eta iurtzi esku torpetu eta ximurtukin tripe-txoa.

Gustoa zeon ume-txoa. Begi beltzak zaal zaalik, oanyo etzun itzala besteik ikusiko, baino Amonan, (bir) Amonan bozak lasaitze zun. Ta iurtzi ta iurtzi tripetxoa, harrek. Ta hasi zen halakoatean hankak astintzen umea. “Normala, sokalde hontan itteon beroakin, manta kendu nahi do gaxoak”, nee artean.

Eta hasi zen soinu-txoak itten Amonan, (bir)Amonan konturi erantzun nahian bezala. - “Hara, oihu-irrintzik itten e hasi a ta goe neska ttikie!!”, amonak.

-Ze itten?

-Oihu irrintzik. Oihu-irrintzik esaten zaie hoori. Geoxau hasten dee txoro parrak.

Oihu-irrintzik, jai berrin algara ttikik dee, hortaz. Eta txoro parrak, ustez zentzuik bareko parre kutsakor hoik. Kozkor mallutan kozkor malluna're xamurtzen duen par kutsakor hoik; o gustoko pertsonak matalle iurtzitzean ateatzen duen hoik.

Oihu-irrintzi eta txoro parran ondorenean eztaikit noiz galtzean umeak berezkoa duen naturaltasun hoi. Ta nola ezta ba galduko, izenak beak e horta deama ta. Txoro parra. Ba baituu naturala denai, barrendik ateatzen denai, barne munduei beitzeko dohaie duen hoiri, o izarrai hitzeitako otture duen hairi txoro kutsuet emateko joera.

Hazi da umetxoa. Aztu dee oihu-irrintzik. Zubien alde batean hitzek josteko borrokan dail oain nexka ttikie. Zubien beste aldean hitzei josita eusten lanak, berriz, amonak. Bi belaunaldi. Erreka baten bi ertzak. Batek ezta-kilako eta besteak ahaztu zaiolako, bi esku torpe elkarri eutsiz. Bat ximurtue ta bestea serail-seraille, bete-betea.

Aze ohorea belaunaldin arteko zubi hau zeharkatzeko aukera izatea. Aze ohorea oihu-irrintzike alaba ikustea, parrez ama eta pozik Amona sentitzea. Aze ohorea gure amonen arrasto ttikiet gukin eamatea.

Zubi lana. Urrin sortue zea mailope hontaa, Amona. Eztau jakitteik noiz joango zeon. Nik eztoz goan tripota nola iurtzitzen zeezon oihu-irrintzike hasi arte. Baño beste gauze asko bai, goan izangottot beti.

Urrie zore hileetea denez, bihotzeko muxuik goxona zotzako, Amona. Baño titulo bera damakien eta zubi lana in duen beste amona guztiri're begi keñu goxoat. Errekan alde hontatik o bestetik, zuun taupadak segi zala guban luzaroan.





Lur azpiak gordetzen duena...

Aditu Arkeologia Zerbitzuak zenbait aurkikuntza arkeologiko egin ditu uda honetan San Migeleko santutegiaren kanpokaldean.

Burdinezko lantzak eta geziak, zilarrezko txanponak, jolasean ibiltzeko dadoak, iltzeak, giza hezurak... Asko izan dira uztailetik abuztura bitarte Aditu Arkeologia Zerbitzuko arkeologo taldeak aurkitutako elementu arkeologikoak. Txinatik, Frantziatik, Ingalaterratik, Estatu Batuetatik, Italiatik eta Australiatik etorritako unibertsitate ezberdinetako ikasleek parte hartu dute proiektuan. Fran Valle de Tarazaga aritu da gidari lanetan. Bilboko arkeologo horrek azaldutakoaren arabera, orain dela zenbait urte Uharteko Arakilgo Zamartze elizan egindako indusketen eta ikerketak zabaldu egin nahi dituzte industaketa berri hauekin. Fran: "Jakina da Zamartze erromatarren garaian eraiki zutela eta bertatik kudeatzen zen bailara osoa, baita Aralarko San Migel santutegia ere, ez dakigu ordea, santutegi hau noiz sortu zen eta nola. Zortzigarren mende-

ko Teodosio de Gofiren kondaira baino ez dugu ezagutzen eta istorio horretan errealitate zantzuren bat egongo den arren, kondairak kondairak dira".

Industaketa hauen helburua hain zuzen ere, santutegiaren jatorriari buruzko informazio gehiago eskuratzea da. Hamalau gorpuren hezurdurak atera dituzte santutegi ondoan lurperatuta dagoen hilerrietan. Harkaitz tarteetan zuloak eginda lurperatzen zituzten gorpuak, hilkutxarrik gabe, gorpua hil-oihalean bilduta eta orratz batekin loturik. Fran: "Gure asmoa sei edo bederatzigorpu aurkitzea zen eta uste baino gehiago aurkitu ditugu, hamalau. Baina horrek aurreikusitakoa baino denbora gehiago eskatu digu eta ez digu denborarik eman beherago joateko. Gure helburua lehenengo lurperaketak aurkitzea baitzen, horiek eman

baitiezagukete santutegiaren lehen urteei buruzko informazioa”.

Aurkitutako hezurdura zaharrenak X. Mendekoak dira. Emakumezkoak nahiz gizonezkoak daude tartean eta baita bi urte inguruko haur baten hezurak eta aste gutxi umen batenak ere. Gorpuak eguzkiari begira lurperatzen ziren, ekialdera begira. Hezurdurak ateratzeko metodologia zorrotz jarraitu zuten lanean ibili ziren arkeologoak. Lehenik hilobiaren perimetroa garbitu eta zehazten da eta ondoren hezurran gaineko harriak eta pilatutako materiala kentzen joaten dira eta ondoren hezur guztiak bistan daudenean poltsetan bildu aurretik hezurren tamainak neurtu eta bestelako behaketak egiten dira informazioa eskuratzeko. Hezur guzti horiek pixkanaka garbitu eta tratatu egin zituzten santutegiaren ondoko areto batean. Izan ere, uda osoa San Miguelen ostatu hartuta egon da arkeologo taldea.



Hamalau gorpuren hezurdurak aurkitu dituzte San Migel Santutegiko sarreraren ondoan.

“Arkeologoentzako lan egiteko aukerak oso mugatuak dira”

- 11 -



kigu zein garaietakoak diren. Mota honetak armek oso kronologia luzea izan ohi dute eta ehundaka urtetan ez dute euren diseinua aldatu. Gainera, ez da erraza zehaztea noiz amaitu zuten hemen, esaterako Gerra Zibilean asko izan ziren 1876ko Karlistadetak armekin irten zirenak, beraz, armekin ez da erraza izaten guztiz asmatzea.

Hezurak eta material guzti horiek non gordeko dituzue?

Gure ikerketa amaitu ondoren, hori guztia Nafarroako Gobernuari emanen diogu eta berak erabakiko du zer egin. Nafarroako Gobernuak Iruñean material arkeologikoa gordetzeko biltegi bat du, bertan kontserbatzeko tratamendua ematen zaie. Eta ondoren, beraiek erabakiko dute besterik gabe bertan gorde, Nafarroako Museoa jarri, aldi baterako erakusketetara eraman...

Giza hezurdurez gain ze beste elementu aurkitu dituzue Fran?

Txanpon asko aurkitu ditugu eta oso egoera onean. Batzuk zilarrezkoak dira. Txanponetatik informazio historiko zabala eskuratzeko espero dugu. Horrez gain, denetarik elementuak agertu dira, gerriko baten belarria, iltzeak,

eraztun baten zati txiki bat, orratz asko gorpuen sahietsen artean, jolasteko hezurrezko dadoak, lantzak eta geziak.

Lantza eta gezietatik ere informazioa jasotzerik izanen da...

Bai. Burdinezkoak dira eta oso egoera onean aurkitu ditugu, baina oraingoz ez da-

Gobernua da beraz, zuek aurkitutako guztiaren hartzailea...

Bai. Jakin badakit elizbarrutiak interesa duela Aralarren espazioren bat egokitu eta bertako historia ezagutzera emateko eta tartean objektu hauek erakusgai jartzeko. Kasu horretan, elizbarrutiak gober-



“Nor garen eta nondik gatozen ezagutzeko gako garrantzitsuenak falta zaizkigu”

nuari erakusketan jartzeko piezak eskatu egin beharko dizkio eta gobernua bere segurtasun baldintzak eta bestelakoak zehazteaz gainera gobernuko arkeologoen aldeko edo kontrako txosten bat egin beharko dute. Hala ere azken hitza Foru Ogasunarena da, ondasuna den aldetik nafarrentzako aktibo ekonomiko bat delako.

Eta kontserbatzeko tratamendua ematea beharrezkoa da?

Bai. Adibidez burdinaren kasuan, lurretik atera ondoren burdina inguratzen eta egonkortzen duen geruza desagertu egiten da eta oxidazio prozesua nabarmen azkartzen da. Tratamendua emango ez balitz hilabete gutxitan bere kaxa hautsi egingo litzateke burdina, desagertu. Zentzu horretan, eskertzekoa da Nafarroako Gobernuak egiten duen esfortzua. Koste ekonomiko hori beraiek hartzen dutelako bere gain eta beraiei esker babesten delako. Tratamendu horiek garestiak izaten dira. 70 elementu inguru aurkitu ditugu aurtan, horiek guztiak kontserbatzeko 7.000 edo 8.000 euro beharko genituzke.



Hezur bakoitza garbitu, neurtu eta sailkatu egiten da, baita hezur zatirik txikiena ere.

SAstraka
auto 4x4

Ibilgailuen Mekanika Orokorra
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)

Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9 948.60.48.06 Iñigo
31170 Lekunberri www.sastraka4x4.com

M. Angeles Urrizalki

iragarkiak, berriak, eskelak...

Diario Vasco eta Diario de Navarra Korrespontsala

948513056
699179437

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890

948 513 083
696 732 290

aitzberri@hotmail.com

Arkeologoena bokaziozko lanbide bat da...

Bai, arkeologian dihardutenak benetan gustatzen zaielako lan egiten dute horretan. Zoritxarrez gutxi dira arkeologian aritzeko aukera dutenak egun. Arkeologo gehienek, bulegoetan, bankuetxeetan edo okindegietan egiten dute lan.



Zergatik?

Arkeologoentzako lan egiteko aukerak beti izan dira oso mugatuak. Gogoan dut amak ekonomia ikasteko esaten zidala, "Ekonomia ikasi eta gero gerokoak". Baina egun bizi dugun egoera ziur aski historiako okerrera da. Eta triste da egun oso metodologia aurreratuak eta baliabide asko ditugulako eskura, baina egun ez da baloratzen errentagarritasun ekonomikorik ez duen jarduerarik.

Arabian jada ez da arkeologia enpresarik gelditzen eta Nafarroan bi edo hiru gelditzen direla uste dut, eta horiek ere noiz behinka egiten dutela, bestelako lanekin egin behar izaten dute aurrera.

Atzera goaz orduan?

Orain dela urte batzuk jendea gauza gutxiagorekin bizitzeko gai zen, beste lehenetasun eta balore batzuk zituen eta arkeologian inbertitzea aberasgarria zela uste zen. Gaur egun aldiz, gastu bat da, betebeharrak askorentzat, eta ez bedeinkazio bat. Eta pena da. Badirudi asko dakigula gure iraganaz, baina egiaz oso gutxi ezagutzen dugu, nor garen eta nondik gatozen ulertzeko gako gehienak falta zaizkigu. Esan bezala, akats larria da pentsatzea berehalako errentagarritasun ekonomikorik ez duen horren gerora ez duenik emango. Arkeologia epe luzera errentagarria bihurtzen baita.

Beste herrialde askorekin alderatuta baldintza okerragoetan zaudete hemen...

Bai. Erresuma Batuan esaterako asko inbertitzen da arkeologian. Hainbat finantziario iturri ditu, baina garrantzitsuen loteria nazionala da. Loteria bizioa da eta orekatzeko loteriak ematen dituen irabaziak kulturen eta arkeologian inbertitzen dituzte. Hemen hori pentsaezina da. Arkeologoak testuinguru ezegonkor batean bizi dira eta ondorioz, geroz eta gutxiago dira ikasketak horiek egiten dituztenak.



Gezi puntak eta txanponak aurkitu dituzte besteak beste.

Praktikatu eta Bizi

☎ 948 604 704 / 948 504 400

www.larraogomintzakde.blogspot.com
larravilack.es
larb@larravilack.es
larran eta leku berriko mintzakideak

Sustatzaileak
euskara ZERBITZUA
gurea Bateko

praktikatu

San Migeleko eta Intzako erromeriak



Irailako lehen igandean ospatu zuten Gurutzeen erromeria San Migelen. Urtero bezala Joxe Mari Zabaletak ekarri digu horren berri. Urtetik urtera gutxitzen dijoan arren, aurten ere Araitz, Betelu, Larraun, Lekunberri, Basaburua, Imotz, Leitza eta Aresotik etorritako jendea bildu zen Aralarko santutegian. 25 parrokiatako gurutzeak elkartu ziren Guardetxean eta denak elkarrekin egin zuten San Migel santutegirainoko bidea. Joxe Mari: "Aurtengoan bi berrikuntza izan ziren, alde batetik Uharte Arakilgo parrokiako gurutzea ere batu zen erromeriara. Eta bestetik Guardetxetik San Migelera dijoan hiru kilometro eta 700 metroko tartean, gurutz bidea egin zen, bertan jarritako 14 gurutzeetan geldialdiak egin ziren, Beteluko Juan Joxe Estangak egindako lanari esker". Aurten bildutako dirua, 1.487 euro, Ruandara bidaliko dute bertako behartsuenei laguntzeko.

Bestalde, irailaren 17an, Intzan, Santa Kruz ermitara egin zuten erromeria. Iñazio Azkoaga apaizak eman zuen meza eta tradizioa den bezala kuadrillatxo bat elkartu zen bertan.



Futbol zelaiko tabernaren esleipena

Beti Kozkorreko futbol zelaieko taberna esleitzeko deialdia egin du Beti Kozkor Kirol Elkar-teak. Aurtengo denboraldirako tabernaren esleipenerako prezioa 700 eurokoa izanen da. Interesaturik egonez gero jarri harremanetan 610 094 811 telefono zenbakian edo betiko-zkorke@hortmail.com e-posta bidez.

Araitzen "Euskaraz bizi" taldea sortu dute

Uda bukaeran koadrila bat elkartzen hasi ziren Araizko udaletxean. Euskararen erabilera sustatzeko asmoz jarduera ezberdinak garatzea da taldearen helburua. Abenduan zehar jarduera ezberdinak antolatzen asmoa dute eta horretan dabilta lanean buru-belarri. Herritarren parte hartzea eskertzeko denez, talde irekia da eta nahi duten guztiak parte hartu dezake. Hurrengo bilera urriaren 4ean izanen da, arratsaldeko 19:30etan elkartuko dira Araizko udaletxean. Parte hartu nahi izanez gero, hurbildu zaitez edo jarri harremanetan Euskara Zerbitzuaren bitartez: larbeleareuskaraz@iparmank.eus / 948 504 400.

Lagunasesoría S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

OKM
ABOKATUAK

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555



Et Incarnatus taldearen kontzertuarekin amaitu dute Azken Muga ekimena

Hitzaldiak, bazkariak, kontzertuak, herri kirolak, bertso-saioak... Uztaitetik irailera bitarte hainbat erakusketa eta jarduera antolatu dituzte Zaraten, Azken Muga proiektuaren baitan. Azkarate eta Bedaio arteko mugan egin dira gehienak, nahiz eta eguraldiak lagundu ez duenean Altzo edo Beluko pilotalekuetan egin diren horietako zenbait. Aurten go ekimenari merezitako itxiera emateko joan den irailaren 24an *Et Incarnatus* orkestak kontzertua eskaini zuen Tolosako buruhandi eta erraldoiekin batera. Antolatzaileak pozik daude Azken Mugaren lehen edizio honek eman duenarekin. Aurrekontu oso mugatua izan dute ekintzak antolatzeko eta mugaren bi aldeetako herritarrek izan duten parte hartzearekin eskerturik daude.

Mugiroko Bentak babesturik kamiseta berriak ditu erregionaleko emakumezkoen taldeak



Mugiroko Benta Beti Kozkor Kirol Elkartearen babesleeta bat da eta bere ekarpenari esker denboraldi berrirako Erregionalean dabilzan emakumezkoen taldeko futbolarietako kamiseta berriak atera dituzte. Bi aldeen arteko hartu-emana sendotzeko joan den hilean Benta Kozkor Kirol Elkarteak taldeko kamiseta oparitu zioten Ina Soravillari.

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Inigo Garaioa
MARGOLARIA
 **696 658 288**
LEKUNBERRI

SK
SUAKONTROL
LEKUNBERRI
Suaren kontrako plakak

Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

*Oso ongi
pasa Jaietan!*

IORTIA EL NICA DENTAL HORTZ KLINIKA
Juanjo Gaitte Garcia · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Jai zoriontsuak!

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005 · Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI



“Udalean lanean hasi nintzanean askok segatik ezautzen ninyuen”

- 16 -



Uda honetan, Araizko Udalean aritu da lanean Alaitz Imaz Tolosa. 22 urte ditu eta Hernialdekoa da. Euskal Filologia ikasten ari da eta bere denbora librean segan ere ibiltzen da azken urte hauetan.

Ikasturte hau gelditzen zaizu ikasketak amaitzeko Alaitz...

Bai, Gasteizen nabil euskal filologia ikasten eta proiektua falta zait itteko, klaseak ja bukatuta. Berez, praktikak ez zian obligatoyok, baina nik udaletxeetan ze lan itte zan ikusteatikan in nahi nittun.

Eta zergatik Araitzen? Aurretik inguru hau ezagutzen al zenuen?

Gutxi, batez ere Gaintza izautzen nun. Ez nun herri txiki-txiki bat izatea nahi, ta haundia re etzedila izan. Adibidez Tolosa baten ja haundigia iruitzen zitzaiten ta Hernialdez berriz txikigia. Aittu nintzan han ta hemen bidatzen ta hizkerak ere asko erakartzen nindun. Ta bertako hizkera re ezautu nahi nun. Koldo

Zuazo hizkuntzalaria irakasle eukiet eta bera hemengo hizkera aztertzen ibili zenez, askotan aipatzen zun harek Araitz. Ta azkenen Araitzea...

Uztailean hasi zinen...

Bai, uztailaren erdialdean eta urriaren hasiera arte eongo naiz.

Eta zer moduzko esperientzia izan da?

Ondo, gustau zait, batez e jendiakiko tratua, espero nun herri oso haundia ez izanda jendia ezautu ittezu. Hoi nahi nun ta aurkitu det. Gaina, segatikan jende puska bat ezautzen eta gero hemen topau naiz beaiekin.

Zein izan da udalean egin duzun lana?

Dokumentu administratiboen itzulpenak batez e. Bestalde, hemen kaleen izenak euskaratzeko intentzioa dakae ta hoi re pixkat beitzen aittu naiz.

Euskara teknikariarekin eta Mailopen ere aritu zara...

Ainhoa Berazak, azaldu ziten pixkat bere lana eta Mailope nola itten duzun re ezautu det eta egie esan gustau zait.

Eta ez duzu zure burua hedabide batean lan egiten ikusten?

Bai gustatzen zait, baina hori ere diferentia da hedabide haundi baten o bertako hedabide txiki baten. Tokikoa hedabideak polittegoak iruitze zaizkit.

Filologia ikasketak amaitutakoan ze egiteko asmoa duzu?

Ez dakit, intentzio asko dazkat, gauza pila bat in nahi dittut. Hasieran ez nekan masterra itteko intzeioik, baina CAP edo irakaskuntzan aritzeko masterra itteko esan didate askok eta idazle eskolan izen ematea ere bada asmotako bat.

Udalean ze lankide izan dituzu?

Conchi Cruz, Oihane Soroa eta Joanes Aleman. Oso gustoa ibili naiz beaiekin. Harremana oso gertukoa izan da.

Eta herritarrekin zer moduz? Denetik topatu izan duzu...

Bai! [Kar, kar, kar]. Denetik do, baino orokorren ondo. Gaina harrittuta geldittu nintzan, hemen hasi aurreko asteburun segan ibili nintzan Arribeko festetan eta jende askok ezautzen ninyun eun hartatik.



Gorritin egindako desafioan Joxe Gabilondorekin aritu zen Mikel Berekoetxearen aurka.

“Nere intentzioa etzan sega txapelketetan ateatzeko ikastea, baserrin aitzeko nahi nun”

Sega da zure afizio handienetako bat. Noiz eta nolatan hasi zen segan?

Sega txikitatik gustatu izan zait eta gure etxia, Galardi baserria, izan da segarin etxia bezala. Gure attona segan aitzen zan, etzan txapelketeta ateatzen, baino Hernialdeko jendentzako eta kanpokoentzako sega jartzen aitzen zan. Gure etxea segalarik etortzen zian eta attona aitzen zan sega jartzen. Ta nik attona segan ikusten nun ta beti esaten nun nei gustatze zitzaitela ta segan ikasi nahi nula. Baino, etxen pixkat erotzat harzen ninyuen.

Hernialden o inguruan baziren segan aritzen ziren gazteak?

Ordun ez. Gero Hernialdeko alkatea, Igaro Balda, hasi zan segan ikasten Gazteluko Joxe Gabilondokin eta berak animatu ninyun. Gabilondona jun nintzan probatzea ta harekin ikasi nun.

Zenbat urte zenituen orduan?

Nik 16 urte nazkan. Eta oain e udako

denboraldin Gabilondokin aitzen naiz. Talde bat daka ta tarteka juntatze gea ta eun baten ezta dakit noa jute gea sega ta gu aitzen gea ta bea erakusten.

Zure lehendabiziko erakustaldia edo lehenbiziko txapelketa non izan zen?

Nere intentzioa re etzan txapelketan ateatzea, nik segan ikasi nahi nun ikusten nulako gure etxen e attonak itte zula segan, baino beste inork etzula itten ta Hernialden e gelditzen zianak edadeko jendia zala, gaztek etzuela itten segan. Kontzientzi punttu bat e bazan. Ta nere intentzioa etzan txapelketan ateatzeko ikastea, baserrin pixkat aitzeko nahi nun. Baino Joxekin hasi nintzanen, beak esaten ziten: “Jo jende gutxi do, gaina neskak oaindik gutxiyo...”. Ta sega bultzatzeko zerbait egin balin banezake txapelketa ateatzia zela ikusi nun. Ta hola hasi nintzan. Almitza Sega Elkartek antolatzen du Euskal Herriko sega txapelketa. Hiru saio izaten dia hiru herri diferentetan, ta aurreneko aldiz Tolosan atea nintzan 18 urtekin.

Eta zer moduz?

Gaizki, segan hasi aurreko momentuk eta aurreko eunak oso gaizki, larri, baino gero han behin segan hasita bueno... Ta behin lana inda ja nahiz ta gaizki in behintzat pixu bat gainetik kenduta. Ordun zazpi bat neska izango ginan.

elkARRIZketa:

“Ahalik eta azkarren ebaki behar dezu, baino txukun”

Geroztik txapelketa askotan ibili zara?
Bai, geroztik urtero atea naiz Euskal Herrikoan. Federazioak antolatzen dun Gipuzkoako e atea naiz baino gutxiyo.

Beraz, zuzenean Euskal Herriko joate-rik bada Gipuzkoako txapelketan parte hartu gabe?

Alde batetik federazioak antolatzen duen Euskal Herriko Txapelketa dago eta bestetik Almitzak antolatzen duena eta ni elkartean antolatzen duen txapelketan aritzen naiz.

Desafioak ere egin dituzu...

Bai, dena hiru in dattet. Aurrenekoa Gorritin izan zan, Joakin Garmendia anoetarrakin atea nintzan Mikel Berekoetxean kontra. 500 metro kuadro ahalik eta azkarren nork egin.

Eta nolatan egin zenuten desafio hori?

Bereko, Joakin ta ni karnabal batzutan topatu ginan ta Berekok segan ikasi nahi zula ta Joakinei ea erakutsiko al zion galdetu zion ta ikasten zunen apustu bat ingo zuela biak. Ta bereko Joakinekin hasi zan pixkat segan ta Joakinekin ni asko eoten naiz ta Joakinen ideia izan zan biok Berekon kontra aitzea. Ta Berekok e Gorritiko pestetako ze o zer in nahiko zun ta hola. Jende pila bat jun zan, ez genun espero hainbeste jende bilduko zanik. Gaina saioa re oso polita atea zan, oso paren.

Hori zuek irabazi zenuten...

Bai, baino bastante amistosoa izan zan! [Kar, kar, kar].

Eta hurrengo?

Hurrengua Urnietan izan zan , Xoxokan, Julen Gabilondokin (iazko Euskal Herriko txapelduna), Joan Otergi eta Suar Irazus-tabarrenan kontra. Hoi ja gorragoa izan zan, han ustet 700 metro kuadro ziala ebaki beharrak ya hor galdu ein gendun...

Eta hirugarrena hemen, Arriben...

Bai, Joakinekin berriz ere Berekon kontra. Ordun ya Bereko mejoratzen zijoan



Aurtengo Arribeko festetan berriz ere Gabilondorekin Berekoetxean kontra aritu zen.

ta Berekok 600 metro kuadro ebaki behar zittun ta guk 500.

Hor bukaeran ze pasa zen? Askok ez zekiten nork irabazi zuen eta nork galdu...

Hoi desastre bat izan zan! Berekok partzela bat gehio ebakitzeotan gelditu ginan. Baino azkenen guk e seigarrena ebaki ein gendun ta Joakin ta biok e battea aittu giñan segan...

Epaile bat behar zenuten hor...

Bai, bai.

Nola prestatzen duzu zure burua?

Negun fisikoa, fondoa hartzeko. Negun ezin zea segan aittu, ezta kazulako belarrik eta fisikoa lantzet korrika eta indar ariketa batzuekin. Baino ez naiz eunero entrenatzen, txapelketarako prepatzen naiz jende aurren atezeko ze o ze behar dalako baino... Gero, martxo bukaera aldea segan aitzeko aukera hasten da ta ordun ya segan.

Eta non egiten duzu segan?

Guk baserria eukita bastanteko abantaila daukeu, belazek dazkeulako ta non aittu baukeu. Segan aitzean kaleko jendek esateako problema hoi izateu, ezta kala belazeik entrenatzeko. Eta gu bastante ongi moldatzen gea etxeko belazetan. Eta jendek eskaintzen dizkiatzen e juten naiz ezaunen belazeta.

Txapelketan denbora hartzen da kontuan edo kilotara aritzen zarete?

Almitzak antolatzen duen txapelketan spring-eko proba izaten da. Euskal Herriko sega tradizionala kilotakoa da, adibidez ordubeten ahalik eta kilo gehien ebakitzea. Baino oain dala urte batzuk ja hasi zian nazioarteko estiluan. Ahalik eta azkarren ebaki behar dezu, baino txukun. Ez bazu txukun ebakitzen denbo gehio gehitzen dizue.

Europako Txapelketan ere ibili izan zara...

Bai. Europako txapelketa bi urtetik behin izaten da ta aldiro herrialde baten eta Almitzak antolatzen dun Euskal Herriko Txapelketan sailkatuz gero joateko aukera izaten da. Oain dala hiru urte izan giñan Tirolen, eta lehengo urtean Azpeitin ta ordun oso ondo prepatu nintzan ta hogeita bostetik hamargarren gelditu nintzan. Ondo, baino hala re, nazioarteko gainontzeko segalarik kriston pasada emateigie. Beti esaten da euskaldunak segan onak geala baino...

Etxean hasieran erotzat hartu arren, gero euren animoa izango zenuen...

Bai, etxen aurrenekoz eninyuen ikusten, baino geo hasi nintzan asko laundu ziaten. Attona Juan Joxek e asko launduit teknikakin ta atta re sega jartzen aittu zait.

Antzinako gurdi-bideak berreskuratu ditu “Gurdi Bidea 2016” ekimenak

Burgos eta Pasaia lotu zituen joan den hilean GURDI BIDEA 2016 ekimenak. Abuztuaren 31n hainbat gurdizain atera ziren Burgoseko Itsas Kontsulatutik euren gurdi, idi eta behiekin eta irailaren 17an iritsi ziren Pasaiaiko Albaola Itsas Kultur Faktoriara. Albaolak 16. mendean ondoratu zen San Juan Baileontziaren erreplika zehatza eraikitzeko, artisauki egindako bikea eta mundruna garraiatu zuten, behi, idi eta gurdiekin. Irailaren 13an Irurtzunen gaua pasa ondoren Mugirotik barna iritsi ziren Lekunberrira. Plazaola tren geltokian hainbat herritarrek eta Ibarberri ikastetxeko haurrek egin zieten harrera.

Ekimenaren helburua barnealdeko eta itsasertzeko lurraldeek partekatzen duten ondarea ezagutzera ematea izan zen. Quintanar de la Sierra eta Pasaia arteko Gurdibideak aurreko mendeetan euskal itsasertzera garraiatzen ziren lehengaien garrantzi ekonomikoari balioa emateaz gainera, kultura eta lurralde ezberdinetan mendeetan zehar izandako harremanak berreskuratzea eta sendotzea zen antolakuntzaren erronka.



- 19 -

Mitxauseneak herritarrekin ospatu du bere 25. urteurren festa



Mitxausenea atarian ospatu zuten irailan kultur etxearen 25. urteurrena. Lekunberriko Abesbatzak, txistulariak eta Aralar Musika eskolako musikariek parte hartu zuten festan eta Aner Ansorenak urteurrena borobiltzeko ikus-entzunezko bat eskaini zuen.

Inma Etxarri arduratu da urte guzti hauetan kultur etxearen kudeaketaz eta bertan sortutako kultur ekinen antolakuntzaz. Inmak urte guzti hauetan herritarren aldetik jasotako laguntza eskertu zuen eta Mitxausenean mende laurden honetan egin diren hainbat eta hainbat jardueren aniztasuna nabarmendu zuen. Bestalde, Natalia Azcona alkatesak adierazi zuen herrian egiten diren ekimen eta jarduerak kopurua dela eta aspaldi txiki gelditu zela Mitxausenea eta espazio faltari irtenbidea emateko sortu zela gazte zentroaren proiektua. Legegintzaldia amaitu aurretik gazte zentroa eraikiko dutela esan zuen.

Aldazko Martitxonean emanen zaio hasiera aurtengo Nafarroako sagardo denboraldiari

Beste urte betez Sagardo Eguna ospatu zen irailean Lekunberrin. Nafarroako Sagardogileen Elkarteko sagardoa dastatzeko aukera izan zuten bertara joan zirenek. Baita, eskualdeko gazta eta bestelako artisauro produktuak erosteko ere. Eguerdian, Baztango *Jo ala jo* taldeko kirikoketalariek erakustaldia egin zuten sagarrei zuku ateraz.

Udazkena iritsi da eta aurtengo sagar uzta biltzeko garaia da. Ilbeltzaren erdialdean hasiko da sagardo denboraldia eta maiatzera arte iraunen du. Aurtengoan gainera, Aldazko Martitxonean emanen zaio irekiera Nafarroako sagardo denboraldiari. Aldatzen, Lekunberrin (Toki-Alai sagardotegia) eta Oderitzan (Juanluzenea sagardotegia) bertatik bertara sagardoaz eta sagardotegiko menuaz gozatzeko aukera izanen dugu.



Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.



Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

Lagundu Mailope!

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

GARAIZ Zure behar eta ordutegira moldatuko gara

Mate erdi eta goi zikloetarako prestaketa

Fisika inglesa
lengua kimika

948 504 450
64825352

euskera historia
unibertsitate mailako ikasgaiak

ETORRI ETA INFORMAZIA ZAITEZ!!

Jai giroan...

lazko arrakastaren ondoren, aurten ere Allin herriko jaiei eutsi egin diete eta egun osoko ospakizuna izan zuten iraileko lehen larunbatean. Joan den hilabetean herriko festak ospatu zituzten ere Etxarrin, Intzan, Arruitzen, Baraibarren eta Uitzin.

Arruitzen, Basakaitz taldeak dantza emanaldia eskaini zuen eta Etxarrin berriz, Mikel Lasarte arduratu zen herritarrek dantzan jartzeaz.



- 21 -

Intzan, ume-jokoak egin zituzten eta ondoren herri afaria egin zuten herriko elkarteak. Allin Pettik kontzertu akustikoa eskaini zuen gaueko parrandaren aurretik.



Nekazari eguna



Uitziko Joxe Antonio Ariztimuño omendu dute aurtengo Nekazari Egunean

1996. urtean antolatzeari utzi ondoren, orain dela bi urte Lekunberri eta Larraungo Udalek Nekazari Eguna berreskuratu zuten eta Auritz arrazako zaldien lehiaketa ekarri zuten Lekunberriara. Irailaren 4an Lekunberriko Vegako lautada zaldi, behor eta bestelako abereez bete zen.

Aurten Auritz arrazako lehiaketaren hamargarren edizioa ospatu zen eta 180 buruk parte hartu zuten. Hamabi sailetan banatu zuten lehiaketa animalia motaren eta adinaren arabera. Zaldi gazteenek estualdi bat edo beste pasara ziuten abeltzainei, baina ez zen ezbeharririk gertatu.

Gainera, buru onenak eta eskualdeko onenak ere sari berezia jaso zuten. Eskualdeko saria Beteluko Vicenta Eguren abereetako batek jaso zuen eta lehiaketako bururik onenaren saria berriz Indart Anaien zaldietako batek. Buru horrek berak irabazi zuen 2014ko saria. Beste behin Indart Anaien abereek zeresana eman zuten. Aurkeztutako 22 burutik guztiek jaso zuten saria, horietatik hamar lehen postuan sailkatu ziren.

Ikusgarriena lehiaketa izan arren, bestelako abereak ere izan ziren ikusgai, nafar arraza ezberdinetakoak denak, ardi latxak, euskal txerriak, betizuak, Pirinioetako behiak, pottokak etab.


Aurreko edizioan bezala, aurten ere tokiko produktuen artisau azoka izan zen Vega inguruan eta Juanluzenea Sagar-



dotegiaren eskutik zaldi haragia dastatzeko aukera izan zuten bertara hurbildu zirenek.

Antolakuntza pozik dago aurtengoak emandakoarekin. Jo-setxo Goldarazena: "Inoiz izandako parte hartzerik altuena izan dugu aurten eta oso pozik gaude bai aurkeztutako buruekin eta baita bertaratu zen jende ikusita.

Lehiaketan zehar, sariak eman bitartean omenaldi xume bat egin zioten Nekazari Eguneko antolatzailerek aurtengo maiatzean hil berria den Uitziko Joxe Antonio Ariztimuñori. Jo-setxo: "Nekazari Eguna berreskuratzeko ahaleginetan hasi ginenean lau bat lagun baino ez ginen biltzen eta bera zen horietako bat, ordurako gaixo egon arren izugarritzko ilusioarekin lagundu zuen dena antolatzen".



NEKAZARI EGUNAREN IBILBIDEA IRUDITAN

1988. urtean ospatzen hasiz geroztik gurean egindako Nekazari Eguneko irudiak bildu dituzten usb txartel batean. Orain arteko zazpi edizioetako argazkiak eta ikusentzunezko grabaketak bildu dituzte bertan. Usb-ak salgai jarri zituzten azokan bertan, baina hemendik aurrera zortzi euroren truke eskuratzeko aukera ere izanen da. Salgai izanen dira: Lanbroa liburu-denda, Aurrera tabernan, Albi tabernan, Lekunberriko Laboral Kutxan, Astizko aterpean, Beteluko ostatuan, Arribeko dendan eta Arribeko Surtidorean.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

Langileak eta sustatzaileak trebatzeko ikastaro eskaintza zabala

Elena Irigoienekin izan gara, Cederna Garalur Elkarteko garapen agentea da bera eta aurten dagoeneko egin dituzten ikastaroez gain datozen hilabeteetan eskainiko duten formakuntza eskaintza aurkeztu digu.

Zeintzuk dira elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuak?

Norbaitek negozio bat sortu nahi badu edo negozio ideia bat baldin badu, guk diru-laguntzen inguruko informazioa ematen ditugu, egin beharreko administrazio izapideei buruzko informazioa eta bere negozio ideia hori garatzen edo martxan jartzen laguntzen diogu. Horrez gain, enpresa eta sustatzaile edo ekintzaileentzako formakuntza eskaintzen saiatzen gara.

Zein ikastaro egin dituzue dagoeneko?

Maiatzean "Nola antolatu zure agiriak zerga-betebeharrak betetzeko" ikastaroa egin genuen Leitzaan. Bost lagunek parte hartu zuten. Eta irailean "Haziendako izapideak on-line bidez nola egin" ikastaroa eskaini genuen Lekunberrin. Eta orain ekintzailatza mahaia prestatzen gabilta.

Zer da ekintzailatza mahaia?

Ikastaroa emateko beste modu bat da. Momentu honetan fase berean edo antzekoan dauden sustatzaileak elkartu eta beraiekin lanketa bat egiten dugu bakoitzaren negozio ideia denon artean lantzeko. Urrian eta azaroan egingen dugu hori. Bi saio izanen dira. Uste dugu aberasgarriagoa dela taldean lanketa hori egitea banan banan baino. Pertsona ezberdinen ikuspuntua eta esperientziak partekatzerakoan ideia gehiago sortzen dira.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin eta eskualdeko industrialdeetako zenbait lantegirekin ere ikastaroak antolatu zenituzten...

Bai. Beti saiatzen gara formakuntza ber-

tatik bertara eskaintzen, baina orain arte nahiko zaila izan da, baina gobernu berriak formakuntza deszentralizatzeko beharretara egokitzeko agindua eman zuenetik aukerak zabaldu egin zaizkigu. Otsailean Nafarroako Enplegu Zerbitzuko kudeatzailearekin bildu ginen. Lekunberrira enpresa berriak etorri dira eta lantegi zehatz batzuetan euren langileentzako prestakuntza ikastaroak antolatu zituzten Nafarroako Enplegu Zerbitzutik. Bilera horren ondotik ordea, eskualdeko enpresek dituzten beharrak aztertu eta horri erantzuteko ikastaroak bertan antolatzen hasi ginen. Amankomunean zituzten beharrak identifikatu ondoren orga jasotzaileen ikastaroa, plataforma jasotzailearena, garabi zubia-rena eta lan arriskuen prebentzioaren formakuntzak eskaini genituen ekainean eta uztailean.

Beraz, elkarlanean antolatutako ikastaroak izan dira horiek...

Bai. Sarrió edo Agrozumos bezalako lantegi handiek euren formakuntza eskaintzen diete langileei, baina badira txikiagoak diren beste enpresa asko ez dutenak aukerarik euren langileak prestatzeko. Gainera, ikastaro bakoitzean parte hartu zuten %50a langileak ziren eta %50 langabetuak. Horrela enpresei aukera emanez langabetuak ezagutu eta behar izanez gero eurekin harremanetan jartzeko zerranda osatzeko. Oso arrakatsua izan da. Neronentzako aukera bat izan da enpresengana hurbiltzeko eta baita enpresek euren artean sinergiak sortzeko ere.

Zenbat lagunek parte hartu zuten?

119 pertsonak eman zuten izena. Lau



ikastaro egin genituen baina moduluka edo gaika zatiturik. Langileek eurei interesatzen zitzaizen moduluan soilik izen emateko aukera zuten eta langabetuek ikastaroa osorik egin zuten. Horrela ikastaro osoa egitea bermatu genuen eta langabetuentzako interesgarria izan zen formakuntza zabala jasotzea. Guztira 92 lagunek parte hartu zuten, horietatik hamar emakumeak izan ziren, ez dago gaizki zer nolako sektorea den kontuan izanik.

Eta ikastaro hori egiten jarraitzeko asmoa duzue ikasturte berri honetan?

Bai. Kalitateari buruzko formazioa egiteko dugu eta udazken honetan bulegotika eta kalitateari buruzko ikastaroak eskaintzea da gure asmoa. Bestalde, aurten ikastaroen ordu kopurua handitzea da gure asmoa. Iaz hamar orduko ikastaroak ziren horiek aurten hamabira igotziko ditugu.

Guztiz doakoak dira ikastaroak?

Bai.

Eta parte hartu zuten langabetuetatik inor lanean al dabil bertako lantegiren batean?

Bai, ikastaroaren ondoren badakit bi langabetu lanean hasi zirela eta pixkanaka gehiago hartzen joango dira.

Ikastaro horiez gain turismoari eta komertzioari lotutako enpresa txikiei zuzendutakoak ere aurreikusten dituzue udazken honetarako...

Gure eskualdean nekazaritzako elikagaiekin lotutako enpresak, komertzioak, turismo sektoreko enpresa asko ditugu. Enpresa txikiak dira eta zailtasun handiagoa izaten dituzten kanpora ikastaroak egitera joateko. Plazaola Partzuergo Turistikoko gerentarekin, Gustavo Ruiz de Barrónekin elkartu eta elkarrekin Nafarroako Enplegu Zerbitzuak orain ikastaroak hona ekartzeko ematen digun aukera aprobetxatzea erabaki genuen. Ekainean inkesta bat egin genuen zein ikastarok zuen interes gehien jakiteko,

eta data eta ordutegi egokienak zehazteko. Hiru ikastaro egingen dira guztira: negozio kudeaketa, nola sortu produktua edo zerbitzua eta marketing-a. Hamabost edo hogeit hamar orduko ikastaroak izanen dira eta kasu honetan ere langile eta langabetuei eskainiko diegu.

Zein izanen da ikastaro horien helburua?

Sektore ezberdinekoak izan arren, enpresa txikiak dira denak eta antzeko interesak dituzte, kudeaketa txikia izanik elementu batzuk berdinak dituzte, izan gaztandegia nahiz landa-etxea. Askok aholkularitzaren bitartez erabaten dituzte paperak, baina garrantzitsua da euren finantzak kudeatzen jakitea. Euren produktuak sortzen badakite, baina ez dakite euren negozioa kudeatzen eta salmenta sustatzen. Ikastaro hauekin hori da lortu nahi duguna, tresnak eman horretan trebatu daitezten.

<p>FORMAKUNTZA IKASTAROAK MENDIALDEAN</p>	<p>- OINARRIZKO OFIMATIKA. Astearteetan Leitzako Institutuan. 15:30 - 17:30. Urriaren 18tik azaroaren 8ra.</p>	<p>- OINARRIZKO KALITATEA. Ostegunetan Leitzako Institutuan. 15:30 - 17:30. Urriaren 20tik azaroaren 3ra.</p>
	<p>- ZERBITZUEN ESKAINTZA SORTZEA. Astearteetan Leitzako Udaletxean. 9:30 - 13:30. Urriaren 18tik azaroaren 8ra.</p>	<p>- MARKETIN ONLINE. Asteazkenetan. Lekunberri Plazaola P.T. 9:30 - 13:30. Urriaren 19tik azaroaren 16ra.</p>

Izen-ematea: jcejuelv@navarra.es
 Urriaren 3tik 11era Plazaola Partzuergo Turistikoan, Leitzako Udaletxean.
 848.425.834 · 948507205
 Norentzat: lanean ari diren edo langabezia dauden pertsonentzat. Batez ere Mendialdekoentzat.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE

ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32



panaderia okindegia
GALBURU eco

Egurrezko labore ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

X. Maratoi erdiarekin batera, 42 kilometroko maratoia lehen aldiz Plazaolan

Joan den hilean egin zen lehen aldiz Plazaola Natur Bideko Maratoia. Aurtengoan, maratoi erdiarekin batera Diversport enpresaren bitartez 46 kilometroko proba antolatu zuten.

Bi probak goizeko bederatzietan hasi ziren. X. Maratoi erdian parte hartu zuten korrikalariak Leitzatik atera ziren eta 26 kilometro egin zituzten Andoainera bitarte. 240k lortu zuten helmugara iristea. Lehena Raul Amatriain izan zen (01:29:41), eta oso alde txikiarekin helmugaratu ziren bigarren eta hirugarren postuan Ibai Alba (01:29:49) eta Joseba Jauregi (01:30:22).

Emakumezkoetan, Uxue Tenak irabazi zuen proba (01:54:16), bigarren sailkatu zen Arantxa Perez (01:55:16) eta hirugarren Ana Gonzalez (01:58:06).

42 kilometroko proba Lekunberrin hasi zen eta 100 korrikalari helmugaratu ziren Andoainen. Mikel Rodriguez izan zen azkarrena (02:27:04). Koldo Agirre bigarren sailkatu zen (02:39:04) eta Hugo Figueras hirugarren (02:39:18).

Emakumezkoetan berriz, podiuma horrela gelditu zen: Eva Esnaola lehenengo (03:09:25), Sonia Bassas bigarren (03:25:20) eta Ainara Murua hirugarren (03:25:34).

Informazio gehiago eta sailkapen osoa: <http://www.maratonviasverdes.com/es.plazaola/resultados>



Eskualdetik parte hartzaile gutxi aurtengoan.

Maratoian (42 km):

ANGEL SOROA	03:40:31
-------------	----------

Maratoi erdian (26 km):

XABIER SATRUSTEGI	01:42:24
-------------------	----------

IÑIGO GARMENDIA	01:52:47
-----------------	----------

ANA GONZALEZ	01:58:00
--------------	----------

MARTIN ASKARAI	02:00:57
----------------	----------



NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.
Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20
Lekunberri
urzubi@hotmail.com

Ongi pasa
Pilarika
jaietan!

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com
Atallu - Araitz

Lontxo
Otamendi
Artola

Beti Kozkor Kirol Elkarteak ikasturte honetako futbol taldeak aurkeztu ditu

Urtero bezala, Beti Kozkor Kirol Elkarteak 2016/2017 ikasturtean futboleko diren taldeen eta jokalarien aurkezpena egin zuen Lekunberriko futbol zelaian. 195 jokalaria ibiliko dira aurtengoan kategoriaz ezberdinetako taldeetan. Alvaro Etxarri elkarte-ko kirol koordinatzailea: "Pozik gaude aurten izan ditugun izen emateekin. Futbol eskolatik asko izan dira gora egin dutenak eta kimuen kategorian bi talde sortu behar izan ditugu. Gainontzeko kategorietan 20 jokalaria inguru ibiliko dira, zenbaki polita behar bezala entrenatzeko. Gainera, aurten bi berritasun ditugu: alde batetik Jon Ander Unanua elkarte-ko prestakuntza fisikoaz arduratuko da eta dagoeneko lan metodologia bateratu eta profesional bat jarri du martxan. Eta bestetik, elkarteak bere fisioterapeuta propioa izanen du aurten, Andoni Aierdi."

9 talde eta 20 entrenatzaile:

- Nesken taldea: 17 jokalaria
- Futbol eskola: 44 jokalaria
- Kimuen taldea 1: 13 jokalaria
- Kimuen taldea 2: 15 jokalaria
- Infantilak: 21 jokalaria
- Kadeteak: 20 jokalaria
- Jubenilak: 20 jokalaria
- Taldea Erregionala: 20 jokalaria
- Taldea autonomikoa: 25 jokalaria



Kirola sustatzeko eskaintza berria

Ikastaroetako parte hartzea sustatzeko asmoz, eskaintza berria jarri du martxan Plazaola Kirolgunea. Urtean kuota bakarra ordainduta edozein ikastarotan (bat baino gehiago izan daitezke) eta edozein ordutegi eta ordu kopurutan parte hartzeko aukera izanen da.

Jarduera batean baino gehiagotan izen emateak ekar dezakeen gastuaz eta ordutegi finkoek sortzen dituzten oztopoez jabetu-

ta, formula berri honekin aukera zabaldu nahi dituzte. Gainera, datozen hilabeteetan ikastaro berriak eskainiko dituzte.

Urteko kuota:

- Bazkideak 195 euro.
- Bazkide ez direnak 273 euro.

Eman izena urriaren 7a baino lehen, 948 507 377 telefono zenbakian.

Hostal Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIRU bar

ETXKO PIZZAK,
KOPA BEREZIAK

948504352

Kantina Rock

948
60
48
21

KANTINA
bokatak, platerak eta...musika

LARRAUN

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN s.l.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarrapun@gmail.com

Jai Zoriontsuak!

Uztailaz geroztik berriz ere irekita dago Iribasko Martiko jaketxea

Ainara Marañis zarauztarra da eta Borja Posada madrildarra. Asteasun eta Extremaduran ibili ondoren 2015eko abenduaz geroztik Iribasen bizi dira eta Martiko jaketxea ireki berri dute.



Bizitzeko etxe baten bila ibili ondoren, azkenean Iribasera...

Borja: Bai. Gipuzkoa jada ezagutzen genuen, Asteasu, Zarautz eta Beasain inguruan ibili izan gara. Gipuzkoatik atera eta aldatzarren inguru hauetan begira hasi ginen.

Ainara: Kasualitatea izan zen, baserri bat nahi genuen eta hauxe topatu genuen, Martikoenea, gero jakin genuen azpian taberna ere bazuela.

Borja: Baserria izugarri gustatu zitzaigun hasieratik, baita herria eta ingurua bera ere. Eta azkenean, etortzea erabaki genuen.

Bi alaba dituzue...

Ainara: Bai Gretak bost urte ditu eta Naikek hamabi.

Noiz iritsi zineten?

Borja: 2015eko abenduan, baina, ostua uztailaren 1ean ireki genuen, bertan zazpi hilabete igaro ondoren.

Ostalaritzan arituak zarete biok...

Ainara: Bai, ni zerbitzari bezala eta Borja sukaldari gisa.

Ze ordutegi dauka ostatuak?

Ainara: Goizean, bederatzietarako irekitzen dugu. Itxi, berriz, ordubata aldera aste egunean eta ordubiak aldera asteburuetan.



Zer eskaintzen diozue bezeroari?

Ainara: Errazioak, ogitartekoak, plater konbinatuak, pizzak... Asteburuetan menua ere eskaintzen dugu. Barazki-jaleentzako platerak ere badauzkagu. Eta gosariak ere ematen ditugu. Inguruko landa-etxeetatik etortzen zaizkigu gosaltzera eta aurrez jakinda etxeko madalenak prestatzen dizkiegu... Bezeroak mimoz zaintzen saiatzen gara.

Borja: Jendeak oso gustukoak ditu enpanadillak, kroketak, baita "txapatapa" bertako berezitasun bat ere (Txistorrarekin, patatekin eta tipularekin betetako txapata ogia). Dena bertan egiten dugu. Kanpotik ere etortzen zaigu jendea hauek dastatzera.

Bertan prestatzen duzue dena, etxeko janaren aldeko apustua egiten duzue...

Ainara: Garrantzitsua da etxeko jana eskaintzea, norberak bere kutsua eman behar dio, toki guztietan gauza bera aurkitu ez dezaten. Guri etxeko jana jatea gusta-tzen zaigu kanpora goazenean, eta hori da jendeari eskaini nahi dioguna; platerak euren zaporea izan dezatela, olioak nahastu gabe etab.

Zenbat lagunentzako tokia duzue Martiko Jatetxean?

Borja: Jangela nagusian 60 lagunentzako lekua dago eta tabernan berriz, 25 pertsona inguru sartzen dira.

Ainara: Dena den, jangela ez dugu ireki oraindik, erreserba handiren bat izan

dugunean soilik, Borja eta biok bakarrik baikaude oraingoz.

Lehen hilabete hauek zer moduzkoak izan dira?

Ainara: Nahiz eta hutsetik hasi behar izan dugun, oso gustura gaude, jendea gustura baitago. Askok errepikatu egin



dute eta, oro har, jendeak zoriandu egiten gaitu. Animatuta gaude, lan nekagarria da, baina ilusioa dugu.

Uda ongi joan zaizue... baina negua nola aurreikusten duzue?

Ainara: Udan jendea izan dugu, kanpotik etorritakoak batez ere.

Borja: Neguan izango denak erreparatu pixka bat ematen digu.

Ainara: Garrantzitsua da bertako jendea

erakartzea, azken finean, kanpokoak behin edo beste etor daitezkeen arren, bertakoak direlako egunerokotasun batean bertaratuko direnak, lekunberriarrak, larraundarrak...

Eta Iribasko herritarrek zer moduz hartu zaituztete?

Ainara: Oso ongi. Taberna ireki aurretik zazpi hilabetez bertan bizi izan garenez, jada ezagutzen gintuzten eta oso harrera ona egin digute, gutxitan hartu izan gaituzte horren ongi. Herritarrek bazuten herrian jende gaztea eta haurrak ikusteko gogoia. Eta gu ere pixkanaka bagoaz inguruko herriak eta herritarrak ezagutzen. Asteburuetan dagoeneko hasi dira tabernara hurbiltzen pintxoak jatera eta erronda egitera. Eta herritarren-tzako elkartzeko gune bat izatea nahi genuke.

Aurrera begirako proiekturik ba al duzue?

Borja: Bai, esaterako, ni Aian (Gipuzkoa) aritu nintzen lanean eta han astebururo izaten dira trikitilariak festa giroa jarritz, jende ugari bertaratzen da dantzara eta arrakasta handia du. Haurrentzako ekitaldi edo denbora-pasak jartzeari pentsatu dugu. Ikusiko dugu ea aukerarik dagoen...

Ainara: Momentuz, martxa hartu arte itxaron egingo dugu, baina, gerora antolatuko dugu zerbait, bai badugu intentzioa. Gainera,

jangelan toki aparta daukagu horrelako emanaldiak antolatuzeko.

MARTIKO JATETXEA (Iribas)

Erreserbak:

948 50 76 30 / 696 143 151.

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA · HARATEGIA ·
PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

ekin
rotulación

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri



Zoriondu itzazu zune lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkariaren bitartez!

KuxKuxean



ANE BULDAIN GARZARON

Urriak 10, 9 urte.

Zorionak politte eta oso ongi pasa zure urtebetetze egunean.

Muxu haundi bat, ama, aita eta Mikelen partetik. .

JONE CASTRILLO CRUZ

Urriak 23, 8 urte.

Zorionak Jone!

Egun haundia izan!!

Atalluko familia.



EGOI ETA IZARNE ESKAMENDI

6 eta 8 urte, urriaren 26an eta 28an.

Zorionak bikote!!! Muxu haundi bana zuen urtebetetze egunean.

Kaiet, aitatxo eta amatxo.

AMAIA HUARTE

Irailak 18.

Zorionak! Gastesikoen partez.



EKAITZ ESKAMENDI

Urriak 6, 10 urte.

Zorionak etxekoen partez!!



MAITE ETA MIKEL HUARTE

Urriak 20 eta 28.

Zorionak bikote! Gastesikoen partez.



IBAI ETA LANDER ERASO GORROTXATEGI

5 eta 7 urte, irailaren 22an eta urriaren 21ean.

Zorionak eta urte askotarako bikote!
Gozatu zuen egunean!!

Muaaaaa



ENARA BARANDARAIN MITXAUS

Urriaren 3an, 2 urte.

Zorionak etxeko printxesari!

Gutxinaka zu ere señorita

bilakatzen. Besarkada goxo bat

Areso eta Azpirotzeko familien

partez!

MIKEL NAVARRO

Irailak 27.

Zorionak eta urte askotarako!

Gastesikoen partez.

UNAI GARMENDIA

Irailak 21.

Zorionak! Gastesikoen

partez.



ANDREA NAVARRO

Irailak 20.

Zorionak! Gastesikoen partez.

urria

agenda

7 Eskaintza berezia! Eman izena Plazaola kirolguneko ikastaroetan urriaren 7a baino lehen.

9 Ardoaren Eguna Lekunberrin.

23 Jardunaldi mikologikoak Lekunberrin.

merkatu txikia

SALGAI

- Etxe bat salgai, Errazkinen. Interesaturik egonez gero deitu 605712750 telefono zenbakira.

LAN BILA

- Katakume polti-politik oparitzen dira. Interesatuentzat telefono zenbakia: 619 668 992. Edurne.

ADI!

Merkatu Txikian iragarki bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era.

LEKUNBERRIKO FESTETAKO PILOTA PARTIDAK

• **Ostirata** umiak **7 octubre**
Larraungo goxua
txapelketa

• **Asteartea** umiak **11 octubre**
Pilota Eskolako ikasleak eta
ondoren xare trinketea

• **Larunbata** umiak **8 octubre**
Afizionatuen jaialdia

• **Asteazkena** umiak **12 octubre**
Pilota Eskolako kadeteak

• **Igandea** umiak **9 octubre**
Profesionalen jaialdia

*Afizionatuak:

1.- Salaberria - Gurtea
P.Etxeberria - Anduaga
2.- Ongay - Galarza
Armendariz - Mariezurrena

*Pilota eskolako ikasleak:

-Alebinak: Galarza - Garaño
Eguzkiza - Goldarazena

-Infantilak: Argeta - Iriarte
Ijurko - Ortiz

*Profesionalen jaialdia:

1.- 4 ½:
Ezkurdia / -
2.- Binaka:
Añana - Barriola
Mendiabai III - Zabaleta
3.- Binaka:
Marrón / Erstarobe

-Kadeteak:

1.- 4 ½:
Iriarte / Sarategi
2.- Binaka:
Galarza - Doméño
Etxari - Irastorza

• Partidak egunero, 17etan hasiko dira. / Los partidos empezaran a las 17h.
• Igande eta asteazkeneko jaialdietan bi saski eder zozketatuko dira. /
En los festivales del domingo y del miercoles se sortearán dos cestos.

Antolatzaileak:
Lekunberriko jai batzordea
Larraun Pilota Elkartea



CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24

TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza

Jai Zoriontsuak!

LEKUNBERRIKO JAIK 2016

Urriak 7, ostirala

12:30 Meza
14:00 Jubilatuzko bazkaria. Ondoren musika.
17:00 Larraungo Pilota Goxua.
18:00 2016ko Kartel Lehiaketako Sari Banaketa udaletxeko batzar aretoan.
20:00 Txupinazoa "Iraunkorrek" txarangarekin.
20:05 Zezen suzkoa
22:30 Gazte afaria.
24:00 Lur Jota eta Zesuma.

Urriak 8, larunbata

9:00 Goiz soinua
11:00 Plater tiroketa
12:00 Lekunberriko kilikiak herriko plazan
14:00 Ajoarriero lehiaketa Euskalduna tabernaren parean. (Izen-ematea eguerdiko hamabiak baino lehen).
15:00 Lekunberriko slaloma industrialdean
17:00 Afizionatuen pilota partiduak
17:00 Poker lehiaketa Jubilatuetan
20:30 Kale antzerkia. Ainhoa taberna parean hasiko da.
24:00 Dj Mikel Sevillano

Urriak 9, igandea

9:00 Goiz soinua
11:00 Meza
11:30 Nafar Ardoaren Eguna
12:00 San Lorenzoko dantzariak
13:00 Herri kirolak
17:00 Pilota partidu profesionala
19:30 Bertso-saioa Julio Soto, Maialen Lujanbio eta Andoni Egañarekin
20:00 Mus txapelketa Jubilatuetan
24:00 Oharkabe

Urriak 10, astelehena

9:00 Goiz soinua
11:00 Haurren krosa
12:00 Suzuri txikia eta 2015. urtean jaiotako hurrei zapia jarriko zaie.
12:15 Puzgarriak
14:00 Kalderete lehiaketa (Izen-ematea eguerdiko hamabiak baino lehen)
16:00 Puzgarriak
17:00 Pilota partiduak
19:00 Trikitilariak
19:00 Pintxo Eguna
20:00 "Tajudos del Norte" mexikarrak
24:00 Dj Martin.

Urriak 11, asteartea

9:00 Goiz soinua
13:00 Patata tortilla lehiaketa (Izen-ematea eguerdiko hamabiak baino lehen)
13:00 Herri bazkaria eta ondoren bingoa.
17:00 Sokamuturra eta poneyak
17:00 Pilota partiduak
17:30 Auto-ginkana herriko plazan
20:00 Play-back lehiaketa (Eman izena 14:00ak baino lehen)
24:00 Trikidantz eta Dj Martin

Urriak 12, asteazkena

9:00 Goiz soinua
11:00 Meza
11:30 Puzgarriak eta Txu-txu trenan
12:00 Ezpelurren erraldoi txikiak eliza parean
13:30 Aizkolariak karpan
16:30 Puzgarriak eta Txu-txu trenan
17:00 Pilota partiduak
19:00 Dantzaldia Egan taldearekin.